

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



Ernal giro

Aurtengoan sekula baino beranduago loratu da hurritza, *Corylus avellana*. Zuhaixa honek bi lorealdi ditu: lehena arra eta emea bigarrena. Argazkiko zintzilikario laru hori da lore arrak biltzen dituen. Horiek polen hautsa erruz askatuko dute, ondoren ihartu eta erori bidean direnean begien muturrean azalduko dira emeak, punta gorritxo horiek. Muttur gorri horietan polena harrapatuko dute eta begiaren barrura sartu. Polen honek ernaldu duen lore emeak negu osoa begiaren barruan igaroko du. Gero, udaberrian begia irekitzen denean hosto berriekin batera azalduko dira hur pipittak.

Karetan bizia

GARAI BATEKO lagun jendeak eta ganadu jendeak osatutako senditzarren mantenturako arta-babarrun-kui-arbi laukotea egin izan zen. Monolaborantzan gertatzen den eran, hamarkada joan, hamarraldia bizi, hamartea etorri, lauko laborantza honekin lurra nekatu egiten da. Berezi-ki landareok behar dituzten jakiak gero eta urriago izango ditu lurrak eta landareon areioak ere urtea joan, urtea bizi, urtea etorri bazka ziurtatua dutela jakinki bertan gozo bizitzera ohituko dira. Luberritan izugarri emalea zen soroa, belaunik belanez belau pixkanaka belaunikatu, agortu egingo da. Lodi simaurtuagatik lur berak ezin emari gorenari eutsi. Udako uzta ganbaran zela, artazuriketako esamesa, berriketa, txutxu-mutxu eta zurrumuru artean urtetik urterako arto eta babarrun uzten urritzeaz ihardungo zuten. Landareak flakiak jo eta eskastearen errua ez zioten bakarrik lau labore lantzeari egotziko. Bakarra beharrean lau lantzeak arazoa zertxobait arindu, baina luzatzea besterik ez zuen eragiten. Bestela belaualdi batek somatzen duena laukotearekin bi edo hirutara pasatzen da, arazoa ur-ardotuz eta ikusteko moldea itxuraldatuz.

Arazoaren buelta laiaz edo goldez lurra azpikoz gora jartzea ez zela asmatzea kostako zitzairen. Dozena erdiren bat mende lehenago gutartu ziren arabiarrek ekarritako karearen teknika bazela konturatu eta saiatuko zuen bateren bat etorri zen arte. Zikoizten, elkortzen ari den lurra gozatu egiten du kareak, harrotu eta landareen jakiak mugiarazi. Zenbat eta zein kalitateko, igualeko artaleak eta babarrunak bilduko zituzten kareztatutako sailetan. Bala-bala, soroz soro, ahoz aho, ziztu bizian egingo zuen kare-berriak Euskal Herri hezea aldenik alde, agudo asko! Karearen mirakulua halaxe hartuko zuten garai hartako goseteetan, mirari, eta gurtu. Etxe, soro, belaze, sagasti, iturri... dena kare-tzen zen. Baserriero karobi bat edo bi izango ziren, karea nahi duenak egin egin behar baitu. Karea egin berrian da-eta eraginkorra. Gaur egun ere...

40

40 metro garai zen duela 23 bat urte Iruritan erori zen sekuoia, *Sequoiadendron giganteum*. Itxura guztien arabera 130en bat urte izango zituen, hau da, Europan landatutako lehenengoetakoa. 41 tona egur eta zazpi metroko perimetroa zituen.

